

**“EUSKARAREN FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA: EZAUGARRIAK,
EGOERA ETA BILAKAERA”**

Miramar Jauregia 2021-06-21

Sailburuaren hitzak

Egun on denoi.

Udako ikastaroak. 40 urte.

Euskararen familia bidezko transmisioa: ezaugarriak, egoera eta bilakaera.

Edozein hizkuntzaren biziraupenean oinarritzkoa den gai bereziki garrantzitsua.

Indarrean dagoen Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (2012-2022) lehentasunen artean jarria du familia bidezko transmisioa:

Horrela finkatzen da helburu bezala:

“Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.”

Familia transmisioari buruz hitz egiten dugunean ari gara *hizkuntza afektiboaz* hizketan.

- Haurra bere ingurunerik hurbilenekoan jasotzen eta baliatzen duen hizkuntzaz (edo jasotzen dituenak.
- Ari gara, gainera, hizketan haur horren ardura duten guraso edo zaintzaileek hartu dituzten erabaki sozialetaz.
- Familian euskararen transmisioa egiteak esan nahi du bitzta garaikide honetan, gizartean balioa eman diogula aitortzea;
- esan nahi du haur eta gazte horren hizkuntza gaitasunean, erabileran eta jarreretan positiboki eragiteko hautua hartu dugula;
- eta beraz, euskararen biziberritze prozesu honetako urrats garrantzitsu baten aurrean gaudela.
- Eta horrek lagunduko duela gainerako ekosisteman ere euskararen aldekatasunean nahiz erabileran.

Jakina da etxeko egiturak, antolamenduak eta transmisio erak aldatzen ari garela gure gizartean, eta horrek guztiak bultzatu gaitu ikerketa egitera, eta neurri handi baten, eremu ezberdinetan gai honi buruz egin den gogoeta eta praktikak erdigunean jartzera.

2016an egindako inkesta soziolinguistikoak esan zigun euskararen familia transmisioak gorantza egin duela euskararen lurraldeetan, batez ere Euskadiko Erkidegoan.

Eta gero eta gehiago direla etxean euskara jasotzen duten euskal hiztunak.

Datu garrantzitsua iruditu zitzaigun eta datu horietan sakontzea erabaki genuen, ikerketaren bitartez.

Ikerketa: Kultura eta Hizkuntza Politika sailean jokabide bezala aukeratu dugun jardunbidea.

2020an ikerketa egin genuen, eta 2016ko inkesta soziolinguistikotik ateratako datu kuantitatiboak oinarri hartuta, ikerketan kualitatiboa egin genuen 2020an.

SIADecOk bideratu eta egin zuen lana.

2021ean, ikerketa honen berri eman dugu 3ko itunkideen artean; HAKOBAn ere bai.

HPSko hiru zuzendaritzetan landu dugu maila teknikoan (mintegiak egin ditugu), eta horren ondorioz:

- Aldatu egin da Euskara Sustatzeko zuzendaritzako dirulaguntza deialdia (familia transmisioaren atala),
- EAeko euskara teknikariek gogoeta bat zabaldu da
- Eta ikerketaren berri eman nahiz gaian sakontzeko UDA IKASTAROAK antolatu ditugu.

Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoak eta inkesta demografikoen gai honi buruz ematen duten informazio kuantitatibotik abiatuta, ikusi dugu familia nahiz transmisio ereduak eraldatzen doazela eremu honen guztiaren izaera hobeto ulertu eta eragiteko gako nagusiak topatzeko, hain zuzen.

Ikerketa eta praktika askotarikoek erakusten digute euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak direla:

- ingurune soziolinguistikoa
- eta hiztunaren gaitasun erlatiboa.

Hiztun gaituak euskara erabiltzeko aukera gehiago izango ditu saretua dagoen ingurune euskaldunean, eta horrek lagunduko dio bere gaitasunean aurrera egiten.

Elkar elikatzen duten bi ardatz dira.

Eta bi ardatz hauek zuzenean eragiten dute familia transmisioan ere.

Hori erakutsi digute ikerketek, familia transmisioan eragiten duten aldagai nagusiak direla ingurunea eta gaitasun erlatiboa.

Galdera nagusiak ikastaroaren aurkezpen orrietan jarri dituzue eta neure egiten ditut:

- ✓ Zein dira gure familietan hizkuntza-hautua egiteko moduak eta arrazoiak?
- ✓ Zeintzuk dira euskararen aldeko hautua egiteko zailtasunak?
- ✓ Eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko zailtasunak?
- ✓ Ze eragin dute familiak, lagunarteak, testuinguru soziolinguistikoak edota lan-giroak hizkuntza-ohituren aldaketan?
- ✓ Nola aldatzen dira hizkuntza-ohiturak denboran zehar?
- ✓ Zer egin dezakegu euskararen familia bidezko transmisioa eraginkortzeko?

Jardunaldi hauetan mahai-gainean jarriko diren gogoeta eta ezagutzak bereziki izango dira datozen hamarkada luzeetarako hartu beharreko erabakietarako mugarri.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plan berria (2022-2032) diseinatzeko iturri emaritsua ere bai.

Xalbadorren hura, adibidez, Benito Lertxundik abesti bihurtu zuena:

Ama nola zure belaunetan
nindadukazun denboran,
Utz nazazu zure bularrean
burua pausa dezadan.
Nire bihotzak zer senti duen
nahi baiterauzut erran
Zure ezpain sakratuetarik,
ikasi nuen hizkuntzan.

Eskerrak eman nahi dizkiet Josune Zabala Alberdi, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendariari eta bere lan taldeari.

Eta bereziki izan dadila guztiontzat gaiari sendo heltzeko helduleku mamitsua.